Deabru txikia

Baziran behin hiru estudiante, beti parrandan ebilzanak. Bata naparra zan, bestea arabarra eta hirugarrena bizkaitarra. Orduko denporan Bitoriara joaten ziran mutil gazteak, abade-edo ikasten, hiru probintzietarako seminarioa han egoan eta.

Halako baten zera akordau jaken hiru estudianteai:

–Txo! Beti gabilz gu juergan eta erromerietan; halako baten etxekoak konturatuko dira eta ikusiko dabe ezer ikasi ez doguna. Etxekoai diruak gastau eta diruak gastau hemen gabilz, eta hoba izango da alde egiten badogu.

Iges egin eben Bitoriatik etxerako asmoz, baina etxerantz



etozala, hara non entzuten daben herriren baten Erregeari alabak falta jakozala, ostu egin eutsiezala, seguru.

–Erregeari alabak faltau jakozala? Ba, geuk topauko doguz, inon badira behintzat.

Eta kaletik ebilzala, nonork itandu eutsen:

–Mutilak! Ze ogibide edo ze beharretan zabilze zuek?

–Ba, galtzen dana topetan ibilten gara gu.

–Orduan, badozue lana. Erregeari alabak galdu jakoz, ostu-edo egin deutsiez, antza. Topau eizuez, eta Erregeak sari ona emongo deutsue, egon seguru.

Joan ziran, ba, itxaropenez beterik Madrilera, eta eroan zituen kortera Erregearen jauregira, hareexek zirala galtzen dana topetan ekiten eutsenak eta.

–Zer behar dozue neure alaba kutunak topetako? Eskatu, eskatu bildur barik... –esan ei eutsen Erregeak, haren aurrera eroan ebezanean.

Eta, halan, mendirik mendi ibilteko zaldi eder bana, jatekoa, soinekoak, eskopetak eta soka luzeak eskatu ebezan.

Euren tramankulu guztiak hartu, zaldi gainean parau eta Madrildik urrundu ziran, mendirik mendi Erregearen alaben bila. Egun bi edo hiru korridu eta ostean, gau baten solo baten ondoan lo egitea pentsau eben. Lo egin eta ostean, biharamon goizean, euretariko bi ehizan joango zirala eta besteak bazkaria prestauko ebala ebatzi eben euren artean.

Lehenengo egunean naparrak, berak gertauko ebala bazkaria, eta arabarra eta bizkaitarra ehizan joango zirala akordau eben.

Eta hara hor, ba, arabarra eta bizkaitarra bazkari sasoian atzera etorri ziranean, naparrak bazkaria prestau barik eukan oraindinokarren. Eta esan eutsien beste biak:

–Ze arraio egiten egon zara, mutil? Hainbeste jateko euki eta bazkaria prestau barik hondino? Zertan emon dozu denporea, ba?

Naparra isil-isilik. Ez eban agertu gura, deabru txikiak urten eutsala zulotik eta ikaragarrizko astinaldia emon eutsala.

–Tira ba, danon artean prestauko dogu.

Eta halantxe egin eben.

Biharamonean, arabarrak bera geratuko zala bazkaria

atontzen esan eban. Eta joan ziran naparra eta bizkaitarra ehizara. Orduak joan orduak etorri, eta,

–Bazkaltzeko ordua da, eta goazen etxera-edo, bazkari ingurura –esan eutsan bizkaitarrak naparrari.

Baina naparrak gura ez, bezperan deabru txikiak emoniko beroaldia zala-ta.

–Tira, mutil! –besteak, eta bazkaritan joan ziran.

Ailegau ziran bazkari lekura, eta arabarrak be bazkaria prestau barik eukan. Bizkaitarrak esan eban orduan:

–Atzo honek be ez eban bazkaririk preparau, eta gaur zuk be ez. Hemen janaria sobran eta zuk be ezer atondu ez.

Isilik arabarra be.

Hirugarren egunean bizkaitarrak dinotse:

–Ondo dago! Gaur neu geratuko naz bazkaria egiten. Prestauko dot nik.

Joan ziran beste biak eskopeta bana hartuta basorantz, zer topauko.

Eta bazkaritarako sua egin ebanean bizkaitarrak, deabru txikiak urten eutsan, ra!, zulotik eta:

–Ez neban nik atzo eta harainegun esan ba, hemen surik ez egiteko?

–Ez niri.

Eta bai eta ez hasi ziran. Heldu eutsan deabru txikiak bizkaitarrari, astinaldia emoteko gogoaz; heldu eutsan gero

bizkaitarrak deabru txikiari be eta, azkenean honek irabazi; itzelezko beroaldia emonda hatx-adarrean okotzeko bizarretatik eskegita ipini ei eban. Gero beste mutil bien bila joan zan basora, ordu bi eta erdiak inguruan. Deitu eutsen mutiloi, baina hareek bazkaltzen etorteko bildurra eukien itzela. Ahaleginak eginda, ekarri ei zituan, halanda be.

–Hemen dozue bazkaria ipinita! Zer jazo jatzuen zuei ba, atzo eta harainegun?

Hareek biak isilik! Baina bizkaitarrak argitu eutsen:

–Atzo eta harainegun zuei bazkaria preparetan galerazo eutsuena hor dozue, ba, zintzilik!

Eta hatxaren barrenean erakutsi eutsen. Ñó! Besteak be pozik! Gero, bazkaria jan ebenean, zera bururatu jaken:

–Horrexeri itandu behar deutsagu Erregearen alabakaitik. Non dagozan esaten badeusku, hortik hatx-adarretik askatuko dogula esango deutsagu.

Eta badoa bizkaitarra eta dinotso:

–Erregearen alabak non dagozan esaten badeuskuzu, hortik askatuko zaitugu, atzera lehengo lekura, zure etxera joan zaitezan, zulo barrura.

–Bai, hortxe zuloaren barruan dagoz, gela banatan.

Naparra eta arabarra badoaz deabru txikia askatzekotan, baina bizkaitarrak:

–Geldi hor! Ez askatu, ze ostean, askatzen badogu, Erregearen

alabak atera orduko, atzera beste toki batera eroango ditu, eta gure beharrak guztiak alperrik.

Badoaz hirurak Erregearen alaben bila.

Lehenengo naparra jatsiko zala ebatzi eben. Sokea, berak hiru txilin joten zituanean gora altzetako agindua emon eutsen. Eta behera eta behera, behera eta behera, eta halako baten... txilin, txilin, txilin, eta gora altzau eben.

–Zer? Zer topau dozu?

–Ño! Hor behean ilun dago; horrek zuloorrek ez dauka akaburik!

Arabarra gero, bera joango zala. Heldu eutsan sokeari, zuloan behera eta behera, behera eta behera, behera eta behera... naparra baino beherago joan zan arabarra. Eta halako baten... txilin, txilin, txilin. Ha be gora. Ilun egoala han behean, eta azkenik ez eukala zuloak, harek be.

Azkenean, bizkaitarrak esan eutsen ze:

–Orain neu jatsiko naz. Eta nik txilina joten dodanean, tira egin beharrean, sokeari itxi egingo deutsazue, nasaitu, ze hor goian hondino soka luzea daukazue Erregearen alabak aterateko.

Eta behera eta behera, ia sokea gastauta eukenean, txilin, txilin, txilin. Itxi eutsien sokeari, eta han doa beheko zuloraino bizkaitarra.

Han behean baratz eder bat ei egoan, loraz beterik; beste mundu zoragarri bat idoro ei eban han sakonean. Holakorik!

Ondora etorri jakon gizon bat, ea nora ete joian itaunka, harek



han ez eukala parterik eta. Erregearen alabak salbetan etorrela erantzun eutsan. Eta gizonorrek orduan dinotso:

–Alaba batak daukaz pizti bi altzoan, bigarrenak daukaz hiru pizti, eta hirugarrenak barriz, bost pizti. Eta argi ibili: piztiok izartzen bajatzuz, galduta zagoz, gero!

–Horren ardurarik bape ez daukat!

–Ba hor dozuz ezpatak, piztiai samak ebateko.

Kaxa bi ei egozan han ondoan: bata ugerduna eta bestea brilluduna. Baina bizkaitarrak ugerduna apartau ei eban.

–Hartu eizu ha brilluan dagoana –ohartu eutsan harek gizonak.

–Ez. Ugerduna gurago dot –ostera bizkaitarrak, ugerduna be nahikoa zala hareei piztiai samea ebagiteko eta. Joan zan, lehenengo alabea egoan gela aurrera eta:

–Sartu leiteke? –itandu eban bizkaitarrak.

–Bai, aurrera –alaba zaharrenak.

–Nora zoaz, ba?

–Zeu salbetan nator.

–Neu salbetan? Zer dinozu? Zeuk eta biok hil behar dogu hemen, honeek piztiok izartu ezkero!

–Ez deutso ardura! Zu egon trankil! –bizkaitarrak.

Eta ezpatakada bategaz pizti biai samea kendu eutsen. Atera gelatik arin alabeori, eroan zuloaren parera, lotu sokeari eta jo eutsen goikoai txilina. Eta Erregearen alabea jaso eben gora hareek beste estudiante biek.

Joan zan zuzen bigarren alabea egoan gelara eta hari be baimena eskatu eutsan:

–Sartu leiteke? –bizkaitarrak ostera be.

–Bai, aurrera. Nora zatoz baina? –harrituta Erregearen alabeak.

–Zeu salbetan.

–Baina, baina... honeek piztiok akordetan badira, galduta gagoz biok.

–Ez deutso ardura. Nik samea kenduko deutset honeei hirurai era batera –ikaratu barik bizkaitarrak.

Zast!, joten ditu ezpata-golpe bategaz, eta hiruren samea garbi!

Zuloaren parera eroan eta txilina joaz, igon eben bigarren alabaori.

Gero joan zan hirugarren alabeagana, ha egoan gelara:

–Sartu leiteke? –honi be baimena eskatu eutsan.

–Bai. Baina nora zatoz ba? –mutila ezpatea eskuan ebala ikusi ebanean.

–Zeu salbetan.

–Akordetan badira piztiok, jango gaitue.

–Ez holakorik. Ezpatakada bategaz tragauko dodaz horreek guztiok nik.

Esan eta egin. Joten ditu ezpata-golpe bategaz buruak baino beheratxoago, eta bostak samea kenduta.

Hirugarren alabea be txilina joaz atera eban zulotik bizkaitarrak.

Eta holan lortu eben hiru lagunak Erregearen alabak etxera bueltetea.

Ipuina ulertzen

Ipuina benetan ulertu dozun ikusteko, esaiguzu ondoko esaldiotan esaten dana egia ala guzurra dan:

	E	G
Gazteak obispadutik alde egiten dabe probetxuzko ezer egiten ez ebelako		
Erregeari alabak faltau jakoz etxetik eskapau diralako		
Hiru gazteok Bitoriara joan ziran Erregearen alaben bila		
Mendirik mendi ibili ziran nesken bila		
Gazteak ez eben bazkaria prestetan sukaldaritzan ez ekielako		
Deabrutxo batek ikaratuta eukazan mutilak		
Mutil naparrak lortu eban deabrutxoari irabaztea		
Deabrutxoak eukiezan Erregearen alabak ostuta		
Hirurak batera sartzen dira zulora neskatxak askatzeko		
Zuloaren barruan ez zan ezer ikusten, eta ez egoan inor		
Alabak loreak eukiezan altzoan		
Bizkaitarrak hiru alabak topetan dauz leku berean		
Banan-banan ateraten dauz alabak txilina joz		

Honeexek dozuz ipuinean agertzen diran pertsonaietariko batzuk. Azaldu hiru esalditan ezaugarririk nabarmenenak.

Hiru mutilak

Deabru txikia

Erregearen alabak

Ipuinak jolasteko dira

Topau eizu lehenaldiko aditz honeen orainaldiko formea.

(Itandu) eutsen	A	1	Jako
(Falta) jakozan	B	2	Dagoz
(Hartu) eben	C	3	Deutso
(Urten) eutsan	D	4	Dauke
(Deitu) eutsen	E	5	Dabe
(Ekarri ei) zituan	F	6	Deutse
(Etorri) jakon	G	7	Ditu
(Idoro) eban	H	8	Dau
Euken	I	9	Deutsie
Egozan	J	10	Jakoz

Topau eizuz ezkutuko berba honeek. Baina kontuz, hizki bi sobran dagoz.





Jentila eta morroia

Izan zan behinola jentilak bizi ziran denporea. Jentilok ardiak eukiten ebezan, eta ardiak jagoteko, morroiak. Jentea bildur izaten zan eurakaz morroi joaten, ze morroiai dirua ordaindu behar eutsen orduan, jentilek hil egiten ebezan, alogera ordaindu beharrik ez eukiteko.

Joan zan behin mutil txikitxu bat, jentilen morroi izan gura ebala-ta, eta bidean joiala andra bategaz topez egin eban aurrez aur. Eta itandu eutsan andreorrek:

–Nora zoaz, mutil?

–Jentilagana, kriadua falta dau eta.

Andreak, harrituta, dinotso:

–Ez zaitez joan, ezegaitik be, hil egingo zaitu eta.

–Ezta! Ez ni behintzat. Ni ez nau hilko.

–Ba, orduan eutsi hau, badaezpadan be –esan eutsan andreak erruki harturik, eta emon eutsan haria biribilean batuta, hari luzea ardatzean batuta.

Eta gero ostera be:

–Eutsi hau be.

Eta emon eutsan txori bat. Mutilak, hareek gauza biak hartu eta gorde ebazan. Eta andreak hondino be gaineratu eutsan:

–Horreekaz zeure burua jagongo dozu.

– Ondo dago. Eskerrik asko.

Joan zan mutilori aurrera, eta halako baten heldu zan jentilagana. Jentil horrek itandu eutsan:

–Nora zoaz, mutil?

–Kriadua falta dozula entzun dot –erantzun eutsan mutil txikiak.

–Halantxe da, bai. Ardien ardurea hartzen badozu, ondo ordainduko deutsut nik.

–Horretan etorri naz, ba! –dinotso mutilak.

Ardiak erakutsi eutsazan eta honako baldintzak ipinten hasi jakon jentila:

–Hainbeste ardi dago hemen. Deskuiduan ardirik faltetan bada, hil egingo zaitut, eta ardirik galdu ez bajatzu, ondo ordainduko deutsut. Jagon eidazuz ondo.

–Ardura barik egon, jagongo dodaz eta –erantzun eutsan mutilak.

Kanpora atera zituen ardiok, kontau zituan banan-banan mutilak, ea zenbat egozan guztira, eta ugazabak be gauza bera. Basora joan zanean ardiakaz, jentilak zantzoa egin eutsan eta mutiko ardi-jagoleak be zantzoagaz erantzun.

–Ño! Gogotsu dabil hori –pentsau eban jentilak bere artean.

Baina zer egin eban orduan jentilak? Atzetxotik, artaldea egoan lekura joan, barrutian sartu, eta ardi bat ostu eutsan, mutilak igarri barik.

Goizaldean jagi zanean, mutil jagoleak barriro zenbatu ebazan ardiok eta bat faltau jakola ikusi eban. Zer egingo, zer ez egingo, narrua kendu eutsan ardi bati. Eta ugazaba artaldeari ardurea hartzen hurrengo etorri zanean, dinotso mutilak:

–Kontaizuz ia!

Eta bata narru barik, narrua kenduta!

–Ene! Zer jazo jako horreri ba?

Morroia, ardi haren narrua burutik ipinita, ardien artean sartuta egoan. Eta ha be kontau egin eban, jakina!

–Hau dok itzela! Neuk bat ostu eta ardi guztiak hemen? –egin eban bere artean jentilak–. Zelan izan leiteke hau, ba?

Eta gero esan eutsan morroiari:

–Balientea zara, gero!

Mutila isilik.

Eta jentilak barriro, mutilak gehiago egin eutsala-ta, zelan edo halan ziria sartu gurarik:

–Zeinek pinu gehiago atera gura dozu postura egin?

–Bai, gura badozu –erantzun eutsan morroiak.

Eta jentilak, koiu pinu bi besartean, eta biak erabatera atera zituan. Morroiak, hori ikusi ebanean, atsoak emoniko kordelagaz basoko pinu guztiak lotu zituan. Jentila ikaratu egin zan, eta mutila ezertan hasi orduko:

–Danak ez, danak ez! –egin eutsan mutilari, eta gelditu zan bestea.

–Mutilau zer da indartsua gero! Txikerra baina indartsua! –egin eban jentilak bere kolkorako.

Gero zeinek harria asago bota egin eutsan ostera be eupadea. Lehenengo jentilak bota eban harria, eta eurak egozan mendi-puntatik beste mendi-punta bateraino jaurti eban. Morroiak poltsikoan eukan atsoak emoniko txoria; botaten dau, eta mendi horren beste aldera eta aurrerago joan zan hondino harria zalakoan txoria. Irabazi egin eutsan horretan be jentilari.

Gero esan eutsan ostera be jentilak:

–Palankea zeinek asago bota egingo deutsut.

Eta morroiak arin erantzun be:

–Ondo dago.

Jentilak palankea koiu eta indartsu jaurtigi eban. Mendiaren puntaraino bota eban ha bere. Kriaduak koiu palankea, baina botakeran esan eutsan lehenengo:

–"¡Ahí va la palanca hasta Salamanca!"

Eta jentilak:

–Ez, ez, ez bota haraino ze, senideak daukadaz han eta hareek jo barik!

Eta hor amaitu zan oraingoz euren arteko auzia.

Gero morroiak berak esan eutsan:

–Zeinek arinago egin gura dozu orain?

–Bai, baina zelan? Zelan egingo dozu zuk nik baino arinago ba, zu txikerra zara eta?

–Ba, neuk egiten dodana egiten badozu, nik baino arinago egingo dozu.

Mutilak ardi bati kenduta eukan puxikea, puxikeori ardiaren odolaz bete eban arterago eta alkondarearen eta fraken barrutik gordeta eukan. Atera eban aiztoa eta esan eutsan jentilari:

–Hau egizu eta zeuk be arinago egingo dozu –eta *da!*, puxikatik sartu eban aiztoa, tripatik sartu beharrean, eta zarra-zarra odola dariola hasi zan.

–Hori neuk be egingo dot!

Koiu aiztoa, eta *ra!*, tripatik sartu eta han jausi zan jentila musturrez aurrera, eta kitu! Han garbitu zan betiko.

Gero morroia bera egin zan ardi guztien jaube.

Ipuina ulertzen

Zer dala-ta joan zan mutiltxoa jentilagana?

Zer egiten eben jentilak ardiak jagoteko eukiezan kriaduakaz?

Zer emon eutsan atsoak mutiltxoari?

Zer egin eban mutilak atsoak emondako hariagaz?

Eta, zer egin eban emon eutsan txoriagaz?

Zertarako ostu eban jentilak ardi bat bere artaldetik, berarenak ¿janda?

Zer egin eban dau morroiak konturatu zanean?

Jentila erronkan hasi jakon, orduan morroiari. Baina, nork urten eban irabazle?

Zer egin eban kriaduak jentilari irabazteko?

Jentilak pertsonaia mitologikoak dira. Baina, badakizu zuk zer esan gura daven mitologia berbeak?

Ipuinak jolasteko dira

Lotu eizuz multzo bi honeetan dagozan berbak. Lotzen dozuzanak zentzun bera euki behar dabe.

Alogera	A
Idoro	B
Ostu	C
Eutsi	D
Jagon	E
Zantzoa	F
Jagi	G
Ziria sartu	H
Jazo	I
Jaurtigi	J

1	Aurkitu
2	Zaindu
3	Irrintzia
4	Ederra sartu
5	Bota
6	Lansaria
7	Gertatu
8	Heldu
9	Altzau
10	Lapurtu

Ikusi daigun oraingoan, ea benetan dakizun berba honeek zelan idazten diran. Ezetz ondo asmau ipuinean agertzen diran berbok **s** , **z** ala **x** behar daben.

Eut_i.
Ardat_.
_ant_oa.
Gogot_u.
Oho_tu.
Ja_o.
_iria _artu.

At_oa.
Iraba_i.
Oraingo_.
Ai_toa.
Au_ia.
Pu_ika.
_artu.

Zelakoa begitantzen jatzu jentila? Marraztu eizuz jentila eta bere artaldea.

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© Labayru Ikastegia

Edizinoaren arduraduna:
Idoia Alzibar

Marrazkiak:
Garikoitz Arregi

Lege Gordailua
BI-3450-08

ISBN
978-84-86833-59-6